



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/03/04

## **Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean aho batez onetsi da ezaugarri bereziak daukiezan ondasun higiezinatarako %0,20ko gitxieneko grabamena**

Gasa, Petrolioa eta Kondentsauak Erauztearen ganeko Zergea eta Ondasun higiezinaren gaineko zergea, hurrenez hurren, arautzen dituen Foru Arau barriek zentrau dabe gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusiek Bilbon egin daben Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen bilerea. Arau biak onetsi egin dira, hainbat zuzenketa-eske sartu ostean izan bada be, horreetako bat aho batez onetsitakoa.

Talde guztien aldeko botoakaz onetsi dan eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, Jon Andoni Atutxa eta Ekain Rico bozeroaleen eskutik, batera aurkeztu daben zuzenketa-eske, Ondasun higiezinaren ganeko zergea arautzen dauen Foru Arauaren ingurukoa izan da, ezaugarri bereziko ondasun higieziinei (EBOH-BICES) jagokena, zehatzago esanez. Ondasun horreen barruan sartzen dira landa izaerako eta uri izaerako ondasun higiezinaren aurreko katalogazino bikotxean ondo sartzen ez ziran instalazinoak, Bilboko Portua edo Petronor, beste batzuen artean. Talde biek batera aurkeztu daben zuzenketa-eskeak hau ezarten dau ezaugarri bereziko ondasun higiezinatarako: “gitxieneko grabamenaren eta osagarriaren tasea 100eko 0,20koa izango da, eta gehienekoa 100eko 0,80koa” eta “Udalek tasa bereizituak ezarri ahal izango ditue Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Katastro Higiezinaren Arautegiaren 5 bis artikulua 2. atalak aitatzten dauen ondasunen talde eta azpi-talde bakotxerako”. Zuzenketa-eske horren helburua Udalei segurtasun juridiko handiagoa emotea da, EBOH-BICES izenekoei aplikau ahal jakezan grabamen tasen aplikazinoan, eta baita horreei gitxieneko grabamen tasea apliketan jakela bermatzea be, hori zehazten dauen ordenantza fiskala onesten ez dan udaletan. Zuzenketa-eske onetsi eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arautegi barriaren barruan geratu da.

Bizkaiko Talde Popularraren kontrako boto bakarragaz, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztu daben bigarren zuzenketa-eske be onetsi da, Foru Arau horren 3. artikulua aldatzeko. Bertan, %50eko gainkarga ezarten da etxebizitza erabilera daukien eta hutsik dagozan etxebizitzetarako, eta ezarten da “ez dala inoiz gainkarga aplikauko administrazino publikoak eta euren esku dagozan erakundeak jaube diran etxebizitza erabilerako ondasun higiezinetan, ezta etxebizitza librearen alokairuaren merkaduko bitartekaritza programa publikoak gauzatuz alokairu eskuragarriaren etxebizitza eskaintza publikoaren barruan dagozanetan edo beste batzuek horretarako lagatakoetan”.

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak hainbat taldek aurkeztu dituen beste hiru zuzenketa-eske eztabaidatu ditu, guztiak be OHZ arautzen dauen Foru Arau barriaren 3. artikulua ganekoak. Javier Ruizek (Bizkaiko Popularrak), zuzenketa-eske bitartez, “zergadunaren edo beste persona batzuen bizilekua ez diran etxebizitzak zergapetzen dauen gainkargaren balizko guztiak kentzeko” eskatu dau. Bere zuzenketa-erako proposamena ez da onetsi, Talde Mistoaren aldeko botoa baino ez da elako jaso, eta Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek kontrako botoa emon dabelako.

Horren ostean, hutsik dagozan etxebizitzaren gainkarga "zergaren kuota likidoaren %150era igotzea" proposiduten eban Podemos Bizkaiaren zuzenketa-eske eztabaidau da. Eneritz de Madariaga batzordekideak aurkeztu dauen zuzenketa-eske horren justifikazioa, "hutsik dagozan etxebizitzak alokairuaren merkadura urtetea bultzatzea" zan, "etxebizitza Bizkaiko herritarren eskubidea dala ulertuta". Zuzenketa-eskeak ez dau aurrera egin, kontrako 11 boto eta Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeen aldeko botoak jaso ditualako.

Emaitza bera lortu dau EH Bilduren zuzenketa-eskearen bozketak. Proposamen horrek Udalei eskumenak emotea eskatzen eban, inor bizi ez dan etxebizitza erabilerako higiezinaren jaubeei Ondasun higiezinaren ganeko zergaren %150era arteko gainkarga eskatu ahal izateko.

OHZren Foru Arau barriaren 1., 2. (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztu daberen zuzenketa-eske barruan dagoa), eta 4. artikulua, Xedapen Iragankor Bakarra, 1. Azken Xedapena eta Zioen Azalpena aho batez onetsi dira. 3. artikulua be onetsi da, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztu daberen zuzenketa-eske sartuta.

### **Fracking-a, eztabaidan**

Jose María Iruarrizaga Ogasuneko Diputatua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordera etorri da, 2018ko abenduaren 4an onetsi zan arau barria azaltzeko. Iruarrizagak azaldu dauenez, orain denpora gitxi onetsi dan Kontzertu Ekonomikoaren aldaketak "Gasa, Petrolio eta Kondentsauak Erauztearen ganeko zergen kontzertazioa", eta tributu horreen salbuespenerako eta esijentziarako eskumen jakin batzuk Lurralde Historikoen esku iztea ekarri dau.

Erregulazio barri horren ganean zuzenketa-eske bakarra eztabaidatu da, EH Bilduk aurkeztutakoa, fracking teknika erabilita lortutako gasa gehiago zergapetzeko. Batzarretako talde horren aldetik, Arantxa Urkaregik gogoratuazo eta kritikau egin dau Konstituzino Epaitegiak errekurridu eta indar barik itzi ebazala Euzko Legebiltzarrak Fracking-aren kontra onetsi eban Legearen hainbat artikulua. "Fracking-a osorik ezin badogu debekatu, gitxienez zergapetu daigun askoz gehiago teknika hori erabilita lortutako gasa", defendidu dau Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak.

Talde horren zuzenketa-eskeak 8. artikuluan eukan eragina, eta bolumen handiko frakturazino hidraulikoko teknika erabilita lortutako gasaren zergaren eskalea asko handitzea eskatzen eban; erauzketaren bolumenaren tartearen arabera %1, %3 eta %4koa dana, hurrenez hurren, %25, %75 eta %100era, hain zuzen be, azken hori, fracking-a erabilita egiten diran 164,25 milioi m<sup>3</sup> gas baino gehiagoko erauzketetarako.

Zuzenketa-eskeak ez dau aurrera egin, EH Bildu eta Podemos Bizkaia izan diralako alde agertu diran bakarrak, eta Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Talde Popularra eta Talde Mistoa kontra agertu diralako, kontrako 11 boto batuz. Unai Lerma Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak adierazo dauenez, bere taldeak kontrako botoa emon dau, "ez daukagulako zergea aldatzeko eskumenik, Estaduak ezarritako arautegi bitartez arautzen dalako". Javier Ruizek (Bizkaiko Talde Popularra) esan dauenez, "ez dago ezelango eskumenik" zergaren grabamenaren eskalan.

Euskal Sozialistak taldeko Ekain Ricok, Batzar Nagusiek arlo horretan "ez daukiela ahalmen arauemoilerik" esan dau, eta "bat gatoz proposamena aurkeztu dauen taldeagaz, fracking-a debekau egin beharko litzatekela esateko orduan", azpimarratu dau. Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa) kontrako botoa emongo dauela aurreratu dau eta, "etorkizunari begira, beste Foru Arau batzuen idazketan, "zergadunak" erabili beharrean, "persona fisiko eta juridiko zergadunak" terminoa erabilteko eskatu dau.

Neskutz Rodríguezek hartu dau berbea Podemos Bizkaiaren izenean, alderdiko kide eta Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko idazkaria dan Asun Merinero ordeztuz. Rodríguezek kritikau egin dau, zergea arautzen dauena Estadua dan arren, “ustiapen modu jakin bati lehentasuna emoten jakola, fracking-ari, eta teknika hori dala onuraduna, gasaren itsasoko ustiapenagaz batera”.

11 artikuluak banan-banan bozkatu ostean, danak onetsi dira, 1. eta 2. Xedapen Gehigarriakaz eta Zioen Azalpenagaz batera, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Talde Popularra eta Talde Mistoa taldeen aldeko botoakaz eta EH Bilduren eta Podemos Bizkaiaren abstentzinoakaz. Bozketaren eskema hori artikulu bako txaren bozketan errepikau da, 8. artikuluan izan ezik, artikulu hori EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeetako batzordekideen kontrako botoakaz onetsi da eta.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
04/03/2019

## **Aprobado por unanimidad un gravamen mínimo del 0,20% para los bienes inmuebles de características especiales en la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia**

Las nuevas Normas Forales que regulan, respectivamente, el impuesto sobre la extracción de Gas, Petróleo y Condensados y el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, han centrado la reunión de la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia celebrada esta mañana en Bilbao. Ambas normas han sido aprobadas aunque con la incorporación de varias enmiendas, una de ellas aprobada por unanimidad.

La enmienda ratificada con el apoyo de todos los grupos y presentada conjuntamente por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos por sus respectivos portavoces, Jon Andoni Atutxa y Ekain Rico, se refiere a la Norma Foral que regula el nuevo Impuesto sobre Bienes Inmuebles y, en concreto, a los bienes inmuebles de características especiales (BICES), una nueva categoría que se ha introducido y que se refiere a instalaciones como el Puerto de Bilbao o Petronor que no encajan bien en la anterior doble catalogación de bienes inmuebles de naturaleza rústica y de naturaleza urbana. La enmienda conjunta de los dos grupos establece que para los bienes inmuebles de características especiales “el tipo de gravamen mínimo y supletorio será el 0,20 por 100 y el máximo será el 0,80 por 100” y que “los ayuntamientos podrán establecer tipos diferenciados por cada grupo y subgrupo de bienes a los que se refiere el apartado 2 del artículo 5 bis del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia”. El objetivo de esta enmienda es dotar de mayor seguridad jurídica a los Ayuntamientos en la aplicación de los tipos de gravamen aplicables a los BICES, así como garantizar la aplicación de un tipo de gravamen mínimo a los mismos en los ayuntamientos donde no se apruebe una ordenanza fiscal que lo determine. La enmienda se ha aprobado y ha quedado incorporada a la nueva normativa de la Diputación Foral de Bizkaia.

También se ha aprobado, con el único voto en contra del grupo Popular Vizcaíno, la segunda enmienda conjunta presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos para modificar el artículo 3 de la citada Norma Foral, que establece el recargo del 50 por 100 a las viviendas de uso residencia vacías, estableciendo que “en ningún caso será de aplicación el recargo a los bienes inmuebles de uso residencial propiedad de las administraciones públicas y sus organismos instrumentales, e incluidos en su oferta pública de viviendas en alquiler asequible o cedidos por terceros a las mismas, en ejecución de programas públicos de intermediación en el mercado de alquiler de vivienda libre.”

La Comisión de Economía y Hacienda ha debatido otras tres enmiendas presentadas por diferentes grupos y todas ellas referidas también al artículo 3º de la nueva Norma Foral que regula el IBI. Javier Ruiz (Populares Vizcaínos) ha pedido, vía enmienda, la supresión para todos los supuestos del “recargo que grava las viviendas que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras personas”. Su propuesta de modificación ha sido rechazada, al sumar sólo el apoyo del Grupo Mixto y recabar los votos contrarios de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia y EH Bildu.

En segundo lugar, se ha debatido la enmienda de Podemos Bizkaia que pedía aumentar el recargo que grava las viviendas vacías “al 150% de la cuota líquida del impuesto”. La justificación de esta enmienda, presentada por la apoderada Eneritz de Madariaga, tenía por objeto “impulsar la salida de viviendas vacías al mercado de alquiler, entendiendo que la vivienda es un derecho de la ciudadanía vizcaína”. La enmienda no ha salido adelante al sumar 11 votos en contra y los votos favorables de Podemos Bizkaia y EH Bildu.

El mismo resultado ha obtenido la votación de la enmienda de EH Bildu que pedía igualmente dar potestad a los Ayuntamientos para exigir un recargo de hasta el 150 por 100 de la cuota líquida del Impuesto sobre Bienes Inmuebles a propietarios y propietarias de inmuebles de uso residencial que no estén habitadas.

Los artículos 1º, 2º (con la enmienda conjunta presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) y 4º, la Disposición Transitoria Única, las Disposiciones Finales 1ª y la Exposición de Motivos de la nueva Norma Foral del IBI se han aprobado por unanimidad. El artículo 3º también ha sido aprobado incorporando la enmienda conjunta de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

### **El fracking, a debate**

El Diputado de Hacienda, José María Iruarrizaga, ha comparecido en la Comisión de Economía y Hacienda para explicar la nueva norma aprobada el 4 de diciembre de 2018. Iruarrizaga ha destacado que la reciente modificación del Concierto Económico ha supuesto “la concertación del impuesto sobre la extracción de gas, petróleo y condensados” y la concesión a los Territorios Históricos de ciertas competencias para la exacción y exigencia de estos tributos.

Sobre esta nueva regulación se ha debatido una única enmienda, presentada por EH Bildu, que pedía que se aumentara el gravamen de gas obtenido por la técnica del fracking. En nombre de este grupo juntero, Arantxa Urkaregi ha recordado y criticado que el Tribunal Constitucional recurrió y dejó sin efecto algunos artículos de la Ley contra el fracking aprobada por el Parlamento Vasco. “Si no podemos prohibirlo el fracking en su totalidad, al menos, gravemos mucho más el gas obtenido por dicha técnica”, ha defendido Urkaregi, portavoz de EH Bildu.

La enmienda de este grupo juntero afectaba al artículo 8º y solicitaba un aumento considerable de la escala de gravamen de la extracción de gas obtenido por técnicas de fracturación hidráulica de alto volumen; concretamente del 1%, 3% y 4%, según diferentes tramos del volumen de extracción, al 25%, 75% y el 100%, éste último para la extracción de más de 164,25 millones de m3 de gas utilizando el fracking.

La enmienda no ha salido adelante al contar sólo con el apoyo de EH Bildu y Podemos Bizkaia, frente a los 11 votos en contra de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupos Popular Vizcaíno y Mixto. Unai Lerma, vocal de Nacionalistas Vascos, ha justificado el rechazo de su grupo señalando que “no tenemos competencia para modificar el impuesto, que se regula así por normativa establecida por el Estado”. Javier Ruiz (Grupo Popular Vizcaíno) ha precisado que “no cabe ninguna competencia” en la escala de gravamen del impuesto.

Ekain Rico, en nombre de Socialistas Vascos, ha alegado “falta de capacidad normativa” de las Juntas Generales en este asunto, destacando que “compartimos con el grupo proponente la necesidad de prohibición del fracking”. Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha anunciado su voto en contra y ha pedido que “de cara al futuro, en la redacción de otras Normas Forales se utilice el término ‘las personas físicas y jurídicas contribuyentes’, en vez de ‘los y las contribuyentes’”.

Neskutz Rodríguez ha tomado la palabra en nombre de Podemos Bizkaia, sustituyendo a Asun Merinero, compañera de partido y secretaria de la Comisión de Economía y Hacienda. Rodríguez ha criticado que, aunque sea el Estado el que regula el gravamen, “se está priorizando una forma determinada de explotación, la del fracking, que sale beneficiado junto con la explotación marina de gas”.

Tras votar por orden los 11 artículos, todos han quedado aprobados junto a las Disposiciones Adicionales 1ª y 2ª y la Exposición de motivos, con los votos favorables de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupos Popular Vizcaíno y Mixto y las abstenciones de EH Bildu y Podemos Bizkaia. Este esquema de votación se ha ido repitiendo en la votación de cada artículo, con una excepción el artículo 8, que ha quedado aprobado con los votos en contra de apoderados y apoderadas de EH Bildu y Podemos Bizkaia.